

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

NAZIOARTEKO
BIKAIN TASUN
CAMPUSA
CAMPUS DE
EXCELENCIA
INTERNACIONAL

KOMUNIKAZIO PLANA 2016-2019 UPV/EHU

2016ko ekaina

KOMUNIKAZIO PLANA 2016-2019 UPV/EHU

AURKIBIDEA

AURKEZPENA/ATARIKOA	3
1. PLANAREN FILOSOFIA	5
2. ESTRATEGIA, ESTILOA ETA MEZUAK	11
3. PLANAREN METODOLOGIA	14
4. JARDUERA PROPOSAMENAK	15
5. PROPOSAMENEN DESKRIBAPENA	19

AURKEZPENA/ ATARIKOA

Orain dela lau urte, UPV/EHUk Komunikazio Plan bat egin zuen, lehenengoz. Gaur egun oraindik indarrean dagoen plan horrek agerian utzi zuen unibertsitatearen kudeaketan gero eta garrantzitsuagoa eta estrategikoagoa den komunikazioaren garrantzia eta interesa. Horrez gain, UPV/EHUk datozen urteetan egin nahi zituen hainbat komunikazio ekintza sistematizatzeko eta antolatzeke aukera eman zuen.

Lau urte igaro dira 2012-2015 aldirako Komunikazio Plana egin zenetik, eta haren gauzapean eta eraginkortasun mailaren gainean gogoeta egiteko unea iritsi zaigu; horrela, hautemandako behar komunikatibo berriak 2016-2019 aldirako Komunikazio Plan honetan jaso eta proiektatu ahal izango ditugu.

Ezin dugu esan, inondik ere, lana bukatuta dagoenik, baina 2012-2015 aldirako Komunikazio Planean jasotako ekintza asko ongi landu eta burutu dira (hori egiaztatzeke aski da dagokion ebaluazio txostena ikustea); gure inguruko eta gure garaiko dinamikek, ordea, erronka berriak gehitzen dizkiote etengabe komunikazioaren arloari.

Erronkak, barne komunikazioan eta kanpo komunikazioan. Erronka horien aurrean, UPV/EHUk – bere komunikazio egiturak nagusiki, baina baita unibertsitateko kide guztiek ere – adi egon behar du une oro, bere eskakizunei zuzen erantzun nahi badie.

Azken urte hauetan komunikazioaren protagonismoa areagotu egin da bere alderdi guztietan: teknologia berrien garapena, gizarte harremanen ohitura eta eredu berriak, komunikazioaren produkzio sektorearen birmoldaketa, profil profesional berrien eskaera –askotan landu gabe dagoena–, euskarri teknologiko berrien agerpena, etab.

Gaur egun inor gutxi jartzen du zalantzan komunikazioak erakundeetan betetzen duen oinarritzko eginkizuna; are gehiago, UPV/EHU bezalako erakunde bat denean, hots, Euskadiko goi hezkuntzako eta ikerketako erakunde nagusia, non komunikazioa aukera bat izatetik nahitaezkoa izatera igaro den. Gizarte osoari eta xede hartzaileei gure lorpenak, aurrerapenak eta aurkikuntzak komunikatzea erakundearentzat garrantzitsua izateaz gainera, gure jardueren berri ematera behartuta gaude, hau da: kontatu behar dugu, eta hala egiten dugu, zer egiten dugun, nola egiten dugun eta zertan inbertitzen ditugun gizarteak emandako baliabideak.

Gardentasun eta lankidetzara garaia da, eta, testuinguru horretan, oinarritzkoa da barne komunikazio bitartekoak ezartzea, informazio jario egonkorrak eta bizkorrak ahalbidetzeko; informazio kanalak ezarri behar ditugu, beharrezkoak ez ezik, gorantzkoak eta horizontalak ere. Gure interesekoak diren hartzaile guztiekin elkarriketa eta kanpo komunikaziorako bide iraunkorrak ezartzeko garaia iritsi zaigu; eta elkarriketa horretan, unibertsitateko kide guztiek lagundu behar dute, gure baitan sortutako ezagutza gizartearekin partekatze aldera.

UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak baiezpenez onartu zuen 2016-2019 Komunikazio Plana 2016ko ekainaren 2an egin zuen saioan.

Eginkizun horretan unibertsitateko kide guztiek dute egitekoren bat, UPV/EHUko komunikazioa ez baita bakarrik bere komunikazio egituraren erantzukizuna. Errektoreak eta Gobernu Taldeak bermatuta, komunikazio horrek haien estrategiarekiko koherentea izan behar du; prozesuak gidatu behar ditu; esfortzuak, koordinatu; asmoak, bateratu; ekimenei, laguntza eman; eta, barne nahiz kanpo lankidetzak eskaerei, erantzun; alabaina, komunikazio politika egokia eramatea kide guztien ardura da, hots, irakasle-ikertzaileena, administrazio eta zerbitzuetako langileena, eta ikasleena eta ehualumnirena.

Azken lau urte hauetan hobetu dugu, asko gainera, UPV/EHUren barne eta kanpo komunikazioan, baina oraindik lan asko dugu egiteko. Horretarako, beharrezkoak diren tresnak eta baliabideak eskuratu beharko ditugu, eta komunikazio egitura erroto eta finkatu beharko dugu, gaurko eta biharko eskakizunei erantzun egokia emateko. Eskakizun horien artean, azpimarratzekoa da Komunikazio Plan bat edukitzearen beharra, gure barne eta kanpo komunikazio helburuak egituratzeko. Haren garapenak eta gauzapenak oinarritzko tresna bat izan behar du UPV/EHUren barne komunikazioa kudeatzeko, eta haren intereseko hartzaileei helarazten dien irudian eragiteko. Komunikazio Plan bat edukitzea eta egoki garatzea lagungarria izango zaie unibertsitateko arduradunei, UPV/EHUren irudiari eta posizionamenduari lotutako erabakiak hartzeko, eta erakundeak unibertsitateko kideekin dituen harremanak hobetzen lagunduko du. Horrez gain, beste kolektibo batzuekin ditugun harremanak hobetzeko aukera emango digu, hala nola ikasle izan daitezkeenak, ikastetxeetako orientatzaileak, unibertsitatara joateko adina duten seme-alaben gurasoak, enpresak, gizarte liderrak, hedabideak eta, oro har, gizartea. Era berean, horren bidez, areagotuko egingo dira kolektibo horien erakundearekiko motibazioa, lotura eta konpromisoa.

Azken batean, 2016-2019 aldirako Komunikazio Plan honek erakundeak aldi horretan barne nahiz kanpo hartzaileei begira egin nahi dituen komunikazio ekintzak biltzen ditu; hortaz, etorkizunean, gida bat izango da arlo horretan egin beharreko jardueretarako.

UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak baiezpenez onartu zuen 2016-2019 Komunikazio Plana 2016ko ekainaren 2an egin zuen saioan.

1

PLANAREN

FILOSOFIA

UPV/EHUko 2016-2019 aldirako Komunikazio Plan honen abiapuntua UPV/EHUko Plan Estrategikoaren (2012-2017) oinarriak dira; izan ere, plan estrategiko horretan definitzen da gure unibertsitatea, hain zuzen, unibertsitate publiko gisa, ikertzen diharduena, euskal gizartearen errotuta dagoena, mundura irekia dena, eta konpromiso etikoa eta soziala dituen.

Oinarri horiek ezartzen dute ere UPV/EHUren misioa eta ikuspegia.

1.1 Misioa

- Lankidetzan oinarritutako eredu eleanitz eta inklusibo propioaren bidez prestakuntza osoa eskaintzea, malgua eta gizartearen premietara egokitua, eta pertsona irizpidedunak, sortzaileak, ekileak eta gizartearekin konprometituak bultzatuko dituen.
- Lankidetzan egindako bikaintasunezko ikerketa garatzea eta sendotzea, UPV/EHU Zientziaren, Teknologiaren eta Berrikuntzaren Euskal Sistemaren ardatz nagusi bihurtuta.
- Atlantikoko Arkuko Euroeskualdean lankidetzan oinarritutako prestakuntza eskaintzea eta ikerketa oinarritzko elementu bihurtzea, unibertsitateko jarduera osoan nazioarteko ikuspegia ezarrita.
- Antolaketa egituraren oinarri izatea elkartze estrategiko modernoak, lurraldean eta inguruko kulturen errotua eta munduari irekita egonik mailarik goreneko prestakuntza eskaintzen duen eta ikerketan diharduen unibertsitateari egokitua, eta bat datorrena campus anitzeko egiturako antolaketarekin.
- Gizartearekin konprometitutako erakunde legez daukan erantzukizuna onartzea, laguntza emanda inguruko gizartearen bizi baldintza hobeketa eta inklusio maila eta kohesio maila hobeketa lortzeko zereginetan, bere eraginpeko gizartearen garapen ekonomiko jasagarriarako laguntza emanda, partaide aktiboa izanda Euskal Herriko gizarteak, kulturak eta ingurugiroak dituen erronkei irtenbideak bilatzeko zereginetan.

1.2 Ikuspegia

Estatutu berrietan zehaztutako helburu eta balioekin bat etorrita, eta kontuan hartuta diagnostiko estrategikoa eta misioa, UPV/EHU 2017an:

- Ikerketan diharduen unibertsitate sendoa izango da nazioartean, talentuak hartzeko eta bere baliorik baliosuenak mundu zabalera bidaltzeko gai izango dena.
- Euskal gizarteak irakaskuntzaren arloan dituen premiei aurre egingo die, jakintzaren arlo guztietan ezagutza zabaldua kalitateko irakaskuntza ereduaren bidez.

- Nazioartean erakargarria izango den graduondoko eskaintza izango du.
- Ezagutza sortuko du lankidetzaren bidez (auzolan) eta Zientziaren, Teknologiaren eta Berrikuntzaren Euskal Sarean zein nazioartean izango duen aliantza politikari esker.
- Euskal gizartearen ongizatean eta ekonomiaren garapenean lagunduko du mugako ikerketan lortutako emaitzen transferentziaren bidez eta ezagutza zabalduz.
- Campusetako unibertsitate bizitzaren alde egingo du arlo guztietan, alegia, irakaskuntzan, gizarte arloetan, eko-hirigintzan eta arkitekturako arloetan, eta etengabe ahaleginduko da unibertsitateko kide guztiak pertsona legez hazi daitezen.
- Hausnarketarako eta pentsamendu kritikorako gune irekia izango da, horren bidez Euskal Herriaren ondore intelektual, humanistiko, kultural eta zientifikoari ekarpen erabakigarria eginez.
- Unibertsitateko kideek beren jarduna bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan betetzea ahalbidetuko du, egoera diglosikoa gaindituta.

1.3. Ardatz estrategikoak eta helburuak

2016-2019 aldirako Komunikazio Planak bi ardatz estrategiko nagusi ditu, bi helburu estrategiko handitan bereiz daitezkeenak. Helburu horiek zehazten dute, bestalde, proposatutako komunikazio ekintzen orientazioa; hortaz, haien garapenean erreferentetzat hartzen dira:

1. **UPV/EHU euskal gizartera hurbiltzea:** ardatz hau bi zentzutan adieraz daiteke:
 - UPV/EHUren eta euskal gizartearen artean komunikatzeko eta informazioa trukatzeko bide eta elkarriketa egonkorak ezartzea, gure intereseko hartzaileengan arreta berezia jarrita.
 - Euskal gizarteari, oro har, eta gure hartzaileei, bereziki, UPV/EHUren eguneroko lanaren berri ematea; euskal gizartean gure presentzia bultzatzea eta gure irudia hobetzea. Plan honek argudioak eman nahi dizkio gizarteari bere unibertsitateaz, hots, UPV/EHUz harro egon dadin.
2. **UPV/EHUren barne kohesioa hobetzea:** marka sendoko barne irudi bat eraikitzeke lana egin nahi da, etorkizunean ikuspegi bateratua duen erakunde bakar gisa garatzea ahalbidetuko diguna. Ardatz hori ere bi norabidetan adieraz dezakegu:
 - UPV/EHUko kide izatearen sentimendua bultzatzea hura osatzen duten, bertan lanean diharduten eta ikasi zuten edo ikasten ari diren pertsonen artean, eta unibertsitateko kideen arteko informazio eta komunikazio fluxuak hobetzea, komunikazio eredu propio bat definituta.
 - UPV/EHUren irudi bateratu eta erakargarri baten proiektzioa bultzatzea, bai barruan bai kanpoan: gure unibertsitateko pertsona eta estamentu guztiek proiektu komun bat osatzen dugu.

1.4. Oinarrizko printzipioak

Komunikazio Planari eusten dioten oinarrizko printzipioak honako hauek dira:

- **Parte hartzea:** Komunikazio Planean, oro har, eta bere ekintzak egitean unibertsitateko kide guztiek dute lekua, eta erantzukizunaren zati bat. Bereziki garrantzitsua da ikastegien eta beren komunikazio arduradunen parte hartzea, baita ikasleena ere.
- **Lankidetza:** Komunikazio Planaren martxa egokia UPV/EHUren barne kolektiboek (irakasle-ikertzaileak, AZPko langileak, ikasleak) eta estamentuek (errektoregoa, ikastegiak, sailak, zerbitzuak) horretan laguntzeko duten jarreraren baitan egongo da.
- **Koordinazioa:** funtsezkoa da planean jasota dauden eta hainbat eragilek eta estamentuk egingo dituzten ekintzen ezarpena eta exekuzioa modu koordinatuan egitea.

1.5. Kontzeptuak

Komunikazio Plana hobeto ulertzeko, haren oinarrian dauden hainbat kontzeptu eta ardatz argitu behar dira, ezinbestekoak baitira planean jasotako ekintzei heltzeko eta horiek garatzeko:

Komunikazio Zuzendaritza

Oraingo Komunikazio Plana (2012-2015) ebaluatzeko eta Komunikazio Plan (2016-2019) berria egiteko informazio bilketan egindako kontsulta, elkarrizketa eta solasaldietan, UPV/EHUren komunikazioan zuzendaritza estrategiko baten gabezia dagoela egiaztatu ahal izan dugu. Eta gabezia ez ezik, kontsultatutako eragileek (ikastegietako dekanok eta zuzendariak, errektoreordeak, zerbitzueta arduradunak, etab.) aho batez adierazi dute Komunikazio Zuzendaritza bat edukitzea behar-beharrezkoa dela zerbitzu eta instantzia guztiak koordinatzeko, UPV/EHUren hainbat arlotatik egindako komunikazio ekintzak bateratzeko eta UPV/EHUk beharrezkoak dituen komunikazio erabaki estrategikoak hartzeko, ingurune eta une batean non horri lotutako guztia gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari den.

Komunikazio Zuzendaritza horren eginkizun ugarien artean, hiruk garrantzi handia dute UPV/EHUren komunikazioa egoki bideratu dadin, oro har, eta 2016-2019 aldirako Komunikazio Plan honek arrakasta izan dezan:

- 1) UPV/EHUko errektoreak zehaztutako komunikazio ildo estrategikoak martxan jartzea, haren misioarekin, ikuspegiarekin eta helburu estrategikoekin bat etorrira;
- 2) ikastegi, zerbitzu, errektoreordetza eta organoetatik egindako ekimen nagusiak bateratzea eta koordinatzea;
- 3) prozesu proaktiboak sortzea eta dinamizatzea komunikazioaren arloan, UPV/EHU osoan.

Zuzendaritza hau 2016-2019 aldirako Komunikazio Plana aurrera eramateko gune nagusia izango da. Komunikazio ekintza eta lerro nagusiak gidatu eta/edo koordinatuko ditu, lankidetzan jardunez, une oro, ikastegiekin, sailekin, institutuekin, katedrekin, PIUekin, ikertaldeekin, fundazioekin... Haren egiteko nagusia izango da horiei guztiei laguntza, babesa eta aholkularitza ematea.

Komunikazio egitura

2016-2019 aldirako Komunikazio Planaren exekuzioak eta UPV/EHUk gero eta gehiago egiten dituen komunikazio ekintzek gure unibertsitateak egungo komunikazio organoak eta zerbitzuak berritu behar dituela pentsatzera eramaten gaituzte, datozen lau urteetan komunikazioak ekarriko dizkigun erronkei erantzuteko.

Gure inguruko eta/edo tamaina bereko beste unibertsitate batzuetatik eskuratu ditugun komunikazio egituren ereduak aintzat hartuta, UPV/EHUren komunikazio egitura antolatzeko proposamena landu dugu.

Gaur egungo UPV/EHUren Estatutuek Gobernu Taldean –errektoreordetza mailakoa– zuzendaritza bakar bat egotea eragozten dutenez, Komunikazio Zuzendaritza bat sortzea proposatzen dugu, funtzionalki gaiak arduratzen den errektoreordetzaren barruan egongo dena. Zuzendaritza horren menpe (1. grafikoa) egongo dira Ekitaldien Bulegoa, Komunikazio Bulegoa eta Web Arloa (Datuen Bulegoak, gure ustez, errektorearen kabinetearen menpe jarraitu behar du).

Komunikazio Bulegoa, haren barne (unibertsitateko kideei begirakoa) eta kanpo (gizarteari begirakoa) bokazio bikoitza kontuan hartuta betiere, bost arlo hauen arabera antola daiteke lanerako:

- 1) Harreman publikoak edo *Publicity*¹: ikus-entzunezko eta paperezko hedabideekiko harremana, horren barruan berariaz sartuta barne komunikazioaren arloa (unibertsitateko kideak);
- 2) Identitatea eta marka irudia edo *Branding*²: UPV/EHU markari lotutako guztia;
- 3) Publizitatea, sustapena eta marketina;
- 4) Sare sozialak eta on-line marketina;
- 5) Diseinu grafikoa.


Ekitaldien Bulegoa UPV/EHUk eta bertako zerbitzuek, unitateek eta organoek antolatutako ekitaldiei lotutako alderdi guztiez arduratuko litzateke. Hitz egiten ari gara, hain zuzen, ikastegi, sail, institutu, katedra, PIU, ikertalde, fundazioei buruz, baita errektoreordetzei eta beste zerbitzu batzuei buruz ere (esate baterako, IAZ). Arlo honen barruan protokoloari lotutako gaiak sartu beharko lirateke, sinergia arrazoiak direla eta.

Web Arloak UPV/EHUren webgune korporatiboa hartu beharko luke bere gain, bai kanpoko alderdia bai Intraneta, IKTen Gerenteordetzarekin koordinatuta eta Komunikazio Bulegoarekin lankidetzat estua edukita.

Errektorearen Kabinetearen mendeko Datuen Bulegoak UPV/EHUk sortutako datu guztiak biltzeko eta bateratzeko erantzukizuna izango luke. Beharrezkoa izango litzateke Bulego hori indartzea eta haren esku uztea datuen sorrera eta trafikoaren eginkizun nagusia.

¹ "Harreman publikoak edo *Publicity*" esatean, hedabideekin ditugun harremanak ez ezik, presentzia, kontuan hartzen ditugu ere estaldura eta eragin estrategiak hedabide konbentzionaletan eta bestelako euskarri ez konbentzionaletan, hala nola blogak, sare sozialak, foroak, bideo kanalak (YouTube eta vimeo), etab.

² "Identitate eta marka irudi edo *Branding*" esatean, marketinaren barruko komunikazio teknika bati buruz ari gara. Horren bidez, identitate korporatiboaren kudeaketa eta estrategia lantzen dira, baita marka korporatiboaren irudia eta haren aktibo guztiak ere.



1. Grafikoa. Komunikazio egitura

Proposatutako komunikazio egiturak gaur egun ez dauden lau postu edo profil berri sortzea eskatzen du. Horietako bi funtsezkoak dira, eta berehala bete beharrekoak: 1) Komunikazio zuzendaria (gure ustez, lanpostu hori errektoreak izendatu behar du); eta 2) Web Arloaren arduraduna, webmaster lanak egiteko (AZPko langilea).

Beharrezkoak diren beste bi postuak edo profilak honako hauek dira: 3) Identitate eta marka irudi edo *Branding* profileko lanpostu bat, UPV/EHU marka kudeatzeko (AZPko langilea); eta, 4) Diseinu grafikorako profil bat, UPV/EHUren estilo grafikoa aplikatzeko eta ezartzeko (AZPko langilea). Azken bi postu horiek Komunikazio Bulegoaren barruan sartuko lirатеke.

Horrez gain, ikastegien arteko koordinazio egokirako, beharrezkoa da barne komunikazio egitura egonkor bat edukitzea, eta horretarako oinarritzkoa da ikastegietako komunikazio arduradunen sarea indartzea. Komunikazio Zuzendaritza berriak komunikazio ekintzak gidatuko ditu, ikastegietako komunikazio arduradunen lankidetzaz. Horiek guztiek (Komunikazio Zuzendaritzaren ordezkariak eta ikastegietako ordezkariak) foro egonkor bat osatuko dute (komunikatzeko, lanerako, ideietarako, etab.), Komunikazio Kontseilu gisa izendatuko duguna.

Web orria

XXI. mendean bete betean sartuta gaudelarik, gure ustez, UPV/EHUren webguneak ezin du izan barrura begira bizi den eta kanpora begiratzen ez duen erakunde baten egitura instituzionalaren isla bat besterik.

UPV/EHU bezalako erakunde baten webgunea aurkezpen txartela eta garrantzi handiko lan tresna bat da, bai barrura begira (barruko hartzaileak: irakasle-ikertzaileak, AZPko langileak, ikasleak eta ehualumni), bai kanpora begira (kanpoko hartzaileak: ikasle izan daitezkeenak, eskola orientatzaileak, ikasle izan daitezkeenen gurasoak, ikertzaileak, enpresak, gizartea, etab.).

Webguneak hainbat komunikazio helburu bete behar ditu:

- 1) barne beharrei erantzutea;
- 2) kanpo beharrei erantzutea;
- 3) 2012-2016 aldirako Plan Estrategikoaren eta 2016-2019 aldirako Komunikazio Planaren helburuak betetzen laguntzea;
- 4) UPV/EHUren irudi eta identitate moderno bat transmititzea, ezagutza sortzeko gai izango dena, euskal gizartearekiko transferentziarako konpromisoa hartuko duena, mundu globalera proiektatuta egongo dena, bere errealitatearekin bat etorriko dena eta bere helburu estrategikoekin bat egingo duena.

Webguneak gure komunikazio euskarri nagusia izatera iritsi behar du. Balioa eraikitzeko espazio bat da, espazio esanguratsu bat, balio erantsiak hautemateko eta barneratzeko erraztasunak eman behar dituen. Webguneak, beraz, munduari irekitako leiho bat eta erakusleiho bat izan behar du, baina baita informazioa lortzeko eta trukatzeko iturri eraginkor bat ere.

Oreka

2016-2019 aldirako Komunikazio Planak etengabe bilatuko du oreka unibertsitateko estamentuen beharren artean (ikastegietako, sailtako, institutueta, katedretako, prestakuntza eta ikerketa unitateetako, beste unitate batzuetako zuzendaritzak, irakasleak eta ikertzaileak, AZPko langileak, ikasleak eta ehualumni). Hau da, bi joera harmonizatuko ditu: zentripetua (irizpideak eta ekintza bateratzea) eta zentrifugoa (estamentu horien autonomia), baina oso argi edukita, betiere, haren oinarritzko helburuak direla, batetik, UPV/EHUren barne kohesioa bultzatzea, eta, bestetik, UPV/EHU marka bultzatzea haren kanpo proiektazioan.

2

ESTRATEGIA, ESTILOA ETA MEZUAK

2016-2019 aldirako Komunikazio Plan honetan jasotako estrategia, estiloa eta mezuak bat datoz indarrean dagoen UPV/EHUren II. Euskararen Plan Gidarian (2013-2017) jasotako ildo estrategikoekin, eta horietan zorrotasunez errespetatuko dira UPV/EHUko komunikazio ofizialetan bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak, zeinak jasota baitaude *UPV/EHUren harreman ofizialetan bi hizkuntza ofizialen erabilerarako jarraibide eta ildoak* izeneko dokumentuan.

2.1. Estrategia

2016-2019 aldirako Komunikazio Plan honek harreman publikoen teknikan oinarritutako komunikazio instituzionala lantzeko estrategia bat proposatzen du UPV/EHUra, erakundearen balioak eta jarduerak zabaltzea eta proiektatzea ahalbidetuko duena. Komunikazio instituzionalaren alde egiten dugun apustuak ahalegin eta jarraitutasun handiagoa eskatzen du (baliabide ekonomiko gutxiago), baina ziur gaude euskal gizartearekiko eta helburu ditugun hartzaileekiko elkarrizketa egonkorak lortuko ditugula estrategia horri esker, eta, epe luzera, eraginkorragoa izango dela haiekiko komunikazioa.

Estrategia instituzionala eta harreman publikoen estrategia oinarrituko dira, batetik, harreman publikoei edo *Publitzityri* lotutako formatuetan eta tekniketan (prentsaurrekoak, prentsa oharrak, bisitak, gertaeren plangintza, etab.), eta, bestetik, gure hartzaileei, hedabideei eta euskal gizarteari bideratuta antolatuko diren ekintza eta ekitaldietan (gradueta azokak, orientatzaileenak, graduondokoak, Zientziaren Astea, ikastegietako graduazio ekitaldiak, etab.).

Estrategia horrek ez du baztertzen, une jakinetan eta behar espezifikoek erantzuteko, beste era bateko komunikazio teknikak erabiltzea, hala nola publizitatea, babesletza, sustapena eta merchandisinga.

2.2. Komunikazio estiloa eta estilo grafikoa

Barne zein kanpo hartzaileekiko komunikazioaren estiloa eta edukia hiru printzipiotan oinarrituko da: gardentasuna, begirunea eta gertutasuna.

Gure komunikazio estilo propioak UPV/EHUren balio praktikoak jaso behar ditu, hots: gardentasuna, begirunea, zintzotasuna, hurbiltasuna, objektibotasuna, argitasuna, uste osoa eta sinesgarritasuna. Bestalde, ezaugarri hauek bete behar ditu: entzungarria, erakargarria, argia, sortzailea, bakarra, zirrargarria eta originala izatea.

Komunikazio estilo horrek gure komunikazio ekintza guztiak gidatu behar ditu, eta gidatuko ditu etorkizunean, eta horrekin batera estilo grafiko propio bat izango dugu, orain dela gutxi Komunikazio Bulegoak egindako UPV/EHU Marka Adierazteko Gidan jasota dagoena. Sare sozialei dagokienez, gure komunikazio estiloak Komunikazio Bulegoak egindako *UPV/EHUren sare sozialen erabileren eta estiloaren gidan* jasotako ildoei jarraituko die. Eta webgune korporatiboaren edukiei, mantentzeari eta eguneratzeari lotutako ildoak, berriz, une honetan egiten ari den UPV/EHUko webgunearen estilo liburuan jasoko dira.

Estilo berezia, sendoa eta iraunkorra da, uste baitugu gure estilo grafikoak honako ezaugarri hauek eduki behar dituela:

- Bereizgarria: beste unibertsitateengandik bereiziko dena
- Positiboa: erakargarria izan behar du.
- Argia: argia izan behar du, soila.
- Nabarmena: ikusteko eta entzuteko modukoa izan behar du.

Aipatu behar da ere UPV/EHUk EHUType izeneko tipografia propioa duela. Tipografia horretan biltzen dira modu ikusgarrian Chillidaren logoaren aktiboak, eta horren bidez proiektatzen dira UPV/EHUk helarazi nahi dituen balioak. Tipografia UPV/EHUko webgunearen estilo liburuan jasotako irizpideen arabera erabili behar da, alderdi hauei dagokienez: tamaina, posizioak, izenburu eta goiburuen kokalekua, azpтитuluak, argazkiekiko lotura, etab. (Tipografiaren URLa <http://www.ehu.eus/es/web/gizartea/ehu-tipografia> da).

2.3. Mezuak

Helburu ditugun hartzaileei, bai barrukoei (ikastegietako, sailetako, institutuetako, katedretako, prestakuntza eta ikerketa unitateetako, beste unitate batzuetako zuzendaritzak, irakasleak eta ikertzaileak, AZPko langileak, ikasleak eta egresatuak), bai kanpokoei (orientatzaileak, batxilergoko eta lanbide heziketako ikasleak, unibertsitateko ikasle ohiak, familiak, erakunde publikoak, enpresak, gizarte liderrak, hedabideak, eta gizartea, oro har), helarazi nahi dizkiegun mezuek lotura bat izango dute beti, eta UPV/EHUren misioa laburbiltzen duen mezu nagusian oinarrituko dira:

Mezu nagusia:

“UPV/EHU erakunde **ikertzaile** bat da, **ezagutza propioa sortzen** duena.

Bigarren mailako mezuak:

“UPV/EHUK kalitatezko prestakuntza prozesua bermatzen du, eta **etika zentzu handiko liderrak, profesionalak eta gizarte eragileak** ematen dizkio gizarteari.”

“UPV/EHU Euskadiko unibertsitate **publikoa** da, gure gizartean errotuta dagoena, harekin identifikatzen dena eta harengan eragiten duena.

“UPV/EHUK konpromiso argia dauka **euskal kulturarekin eta euskararekin**, bere prestakuntza eskaintzan, ikerketetan eta euskararen zabalkundean ikus daitekeen moduan”.

“Ikerkuntzaren aldeko erronkari esker lortuko du UPV/EHUK euskal gizarteari **jakintza transmititzea**, eta orainaldiko eta etorkizuneko ongizatean ekarpen irmoa egitea.

“UPV/EHU **nazioarteko bokazioa** duen unibertsitate bat da”.

3

PLANAREN METODOLOGIA

Komunikazio Plan hau egiteko, aintzat hartu da 2012-2015 aldirako Komunikazio Planaren ebaluazio txostena, haren ondorioei eta gomendioei erreparatuta bereziki.

Aurreko komunikazio planarekin egin zen modu berean, oraingoan ere partaidetza estrategia batez baliatu gara, errealitatearen diagnostiko osoan eta ahalik eta objektiboenean oinarrituta.

Lehen fase batean (2015eko urtarril-maiatza), dagoeneko eginak zeuden dokumentuak bildu eta aztertu ondoren, hainbat hartzaileengana jo genuen, haien iritzia eta lankidetzak eskatzeko.

Fase horretan, 2.952 pertsonak hartu dute parte:

- UPV/EHUko ikastegietako dekanoei eta zuzendariak (ikastegiak, Esperientzia Gelak, Master eta Doktorego Eskola, 36 elkarrizketa, 55 pertsona).
- UPV/EHUko Gobernu Taldeak (12 elkarrizketa, 18 pertsona).
- 1.611 irakaslek, ikertzailek eta AZPko langilek (on-line inkesta).
- UPV/EHUko 56 ikaslek (9 talde dinamikatan).
- 1.200 euskaldun (etxeko inkesta).

Bigarren fasean (2015eko ekain-iraila), diagnostikoa jasotzen zuten 5 txosten partzial egin ziren, barne lanerako dokumentu gisa.

Gero (2015eko urri-abendua), Komunikazio Plan hau lantzeari eta idazteari ekin zitzaion, aurreko dokumentaziotik abiatuta.

Azken fase honetan, UPV/EHUko ikastegietako dekanok eta zuzendarien parte hartzea eta lankidetzak jaso dugu berriro.

Horrez gain, prozesu osoan, bi kontraste taldek parte hartu dute. Talde horiek prozesuan sortutako dokumentazio guztia aztertu zuten, eta laneko bilerak egin zituzten hilean behin, Komunikazio Plana osatzeko lanaren jarraipenerako. Horietako bat UPV/EHUko komunikazio arduradunek osatu zuten (3 pertsona), eta bestea, UPV/EHUko Komunikazio Bulegoko eta "UPV/EHU zenbakitan" ataleko teknikariek (9 pertsona).

4

JARDUERA PROPOSAMENAK

Atal honetan labur aipatuko ditugu Komunikazio Plan (2016-2019) honetan proposatutako 37 ekintza, hiru multzo handi hauetan bilduta:

1. **Egiturazko ekintzak:** ekintzen multzo honetan jasotakoak ez dira berez komunikazio ekintzak; izan ere, UPV/EHUko komunikazio egituraren antolaketari daude lotuta eta komunikazio ekintzen aurrekoak dira. Bereiziko ditugu, alde batetik, egitura funtzionalari edo organigramari lotutako ekintzak, eta, bestetik, komunikazio euskarriei lotutakoak. Nolanahi dela ere, uste dugu une eta leku egokia dela hau horien berri emateko, ezinbestekoak baitira Komunikazio Plan (2016-2019) honek arrakasta izan dezan.
2. **Kanpo komunikazio ekintzak:** ekintzen multzo honek lotura zuzena du UPV/EHUren kanpo komunikazioarekin. Bertan jasotako ekintzak kanpo hartzaile jakinei bideratuko zaizkie, eta komunikazio helburu zehatzak dituzte. Gure kanpo hartzaileei bideratutako ekintzak dira (ikasle izan daitezkeenak, bigarren hezkuntzako orientatzaileak, enpresak, etab.). Ekintza hauetarako harreman publikoen komunikazio teknikak aukeratu ditugu, Estrategia atalean adierazi dugun moduan.
Gure helburu nagusiak hiru hauek izango dira: EAEko batxilergoko eta lanbide heziketako ikastetxeen ikasleak; hedabideak eta euskal gizartea; eta, nazioartea.
3. **Barne komunikazio ekintzak:** multzo honetan bildutako ekintzek lotura zuzena dute UPV/EHUko barne komunikazioarekin. Bertan jasotako ekintzak barne hartzaileei bideratuko zaizkie, eta komunikazio helburu zehatzak dituzte. Gure barne hartzaileei bideratutako ekintzak dira, hots: irakasleak eta administrazio eta zerbitzuetako langileak, ikasleak, eta egresatuak.

37 ekintza horien artetik, 9k komunikazio egiturari eragiten diote, eta antolakuntza izaera nabarmena dute. Gainerako 28ak komunikazio ekintzak dira.

4.1. EGITURAZKO EKINTZAK

ORGANIGRAMA

- 4.1.1. Komunikazio Zuzendaritza bat sortzea, eta UPV/EHUko komunikazioaz arduratuko den komunikazio zuzendaria hautatzea.
- 4.1.2. Webgunearen irudiaz, erabilgarritasunaz eta edukien kudeaketaz arduratuko den webmaster bat izendatzea.
- 4.1.3. UPV/EHUko komunikazio egitura berrantolatzea.
- 4.1.4. Komunikazio Zuzendaritzari beharrezkoak diren baliabide materialak eta giza baliabideak ematea, barne eta kanpo komunikazioa hobetzeko prozesuak gidatzeko. Hala, organoen ahaleginak koordinatuko ditu (ikastegiak, errektoreordetzak, gerenteordetzak, zerbitzuak, etab.), eragileei aholkularitza emango die, ekimenak babestuko ditu, komunikazio ekintzetan parte hartuko du, informazio fluxuak antolatuko ditu, informazioa sailkatuko du, eta UPV/EHUren proiektzioa zabaltzeko materialak sortzen lagunduko du.
- 4.1.5. Datu Estatistikoaren Bulegoa bultzatzea eta indartzea, informazio estatistikoa zentralizatzeko eta bateratzeko.
- 4.1.6. Barruko lan dinamika egonkorra finkatzea, ikastegietan oinarrituta. Dinamika hori Zuzendaritza Komunikazioaren euskarria izango da, Komunikazio Plana hedatzeko. Lan dinamika horretan, ikastegi bakoitzeko barne eta kanpo komunikazio arduradunek parte hartuko dute, Komunikazio Zuzendaritzarekin lotura lanak egiteko.

KOMUNIKAZIO EUSKARRIAK

- 4.1.7. UPV/EHUko webgunea berritzea, bai bere diseinu grafikoa bai bere arkitektura (barne egituraren antolaketa).
- 4.1.8. Webgune korporatiboaren Estilo Liburua egitea eta zabaltzea.
- 4.1.9. Komunikazioaren arloko larrialdi kabineteko protokolo bat egitea.

4.2. KANPO KOMUNIKAZIO EKINTZAK

IKASLE IZAN DAITEZKEEN IKASTETXEETAKO IKASLEAK

- 4.2.1. Batxilergoko eta LHko orientatzaileentzako material espezifiko gehiago sortzea eta material hori hobetzea, eta posta elektronikoz igortzea.
- 4.2.2. Batxilergoko eta LHko ikasleak informatzeko material espezifiko gehiago sortzea, eta material hori hobetzea, ikasleek interes betekotzat jotzen dituzten gaien inguruan: graduak, lan aukerak, ikasteko laguntzak eta bekak, unibertsitate ostatuak, garraioak, etab.

HEDABIDEAK ETA EUSKAL GIZARTEA

- 4.2.3. UPV/EHUko ikastegi berrien izenak zabaltzea euskal gizartean (euskal gizartea, hedabideak, ikastetxeak, unibertsitateko kideak).
- 4.2.4. Adituak zerbitzua zabaltzea, hedabideen artean.
- 4.2.5. UPV/EHUko komunikazio estrategia global bat zehaztea, sare sozialen arloan.
- 4.2.6. UPV/EHUK maiztasun batez egindako ekitaldiak antolatzeako ildoak eta irizpideak jasoko dituen protokolo bat egitea.

NAZIOARTEA

- 4.2.7. Datuen barne bilketarako ildoak ezartzea, unibertsitateen nazioarteko sailkapenetan (rankingak) UPV/EHUren presentzia ahalbidetzeko.
- 4.2.8. Unibertsitateko kideei (batez ere, irakasle-ikertzaileei) UPV/EHUK unibertsitateen nazioarteko sailkapenetan duen lekuaren berri ematea, beren komunikazio elementuetan informazio hori txerta dezaten.
- 4.2.9. UPV/EHUko Master eta Doktoregoen Latinoamerikako Sarearen helburuei, parte hartzaileei eta jarduerai lotutako komunikazio estrategia hobetzea.
- 4.2.10. Euroeskualdeko Nazioarteko Bikaintasun Campusaren helburuei eta jarduerai lotutako komunikazio estrategia zehaztea.
- 4.2.11. Sinposio bat antolatzea, non atzerrian lana egiten duten euskal irakasleek eta ikertzaileek parte hartuko duten. Euskal diaspora zientifikoaren sarea sortzeko abiagune izatea lortu nahi da.
- 4.2.12. Campusa aldizkariaren ingelesezko bertsio labur bat egitea, hiru hilean behin, beste unibertsitate batzuen aurrean gure sustapenerako baliagarriak izan daitezkeen jardueren berri emateko.

4.3. BARNE KOMUNIKAZIO EKINTZAK

Irakasleak eta ikertzaileak, eta AZPko langileak

- 4.3.1. Komunikazio gune birtualak (komunitateak) sortzea, informazio horizontala trukatzeko unibertsitateko kideen artean.
- 4.3.2. UPV/EHUren identitate korporatiboaren eskuliburua eguneratzea, hedatzea eta haren erabilera indartzea.
- 4.3.3. Nazioarteko ekitaldiak –biltzarrak, jardunaldiak, mintegiak, etab.– erakartzeko lana bultzatzea.
- 4.3.4. UPV/EHUK hedabideetan duen eragina unibertsitateko kideen artean zabaltzea eta haiekin partekatzea.
- 4.3.5. UPV/EHUren BILATU berriro definitzea, UPV/EHU lanean diharduten pertsona guztien datuak bilduko dituen txantilo berri bat ezarrita.
- 4.3.6. AZPko langileen harrerarako oinarrizko dokumentu bat idaztea. Dokumentu horretan, langile berri bat UPV/EHU lanean hasten denean zerbitzu eta sail guztiek bete beharreko jarraibide orokorrak eta komunak jasoko dira.
- 4.3.7. Komunikazio Bulegoaren zerbitzuen karta bat egitea, eta unibertsitateko kideen artean zabaltzea.
- 4.3.8. Irakasle-ikertzaileei zuzendutako barne kanpaina bat prestatzea, beren kanpo hedapenerako jardueretan UPV/EHUko kidetasuna eta harekiko lotura adierazteaz ardura daitezen.
- 4.3.9. UPV/EHUren markaren ataria sortzea, eta unibertsitateko kideen artean ezagutzera ematea.

UPV/EHUko IKASLEAK

- 4.3.10. Komunikazio gune birtualak (komunitateak) sortzea ikasleen ordezkariak mailen artean, informazio horizontalaren eta bertikalaren trukea indartzeko (noranzko biko) UPV/EHU oro har, eta haren ikastegietan, bereziki.
- 4.3.11. UPV/EHUko ikasleek posta instituzionala erabil dezaten sustatzea. Ikaslearen esku egongo da bere postarekin zein lotura duen.

ehualumni

- 4.3.12. Gizarte, erakunde, politika, ekonomia eta kultura arloetako liderrak UPV/EHUekin lotzea.
- 4.3.13. Ikasle egresatuen banaketa zerrendak eta/edo datu-baseak sortzea, helbide elektroniko bat adierazita.
- 4.3.14. Urtero, posta elektroniko bidez, UPV/EHUren prestakuntza eskaintzari buruzko informazioa bidaltzea, graduondoko eta masterren eskaintza nabarmenduta.
- 4.3.15. Ikasle egresatuek unibertsitateko jardueretan parte har dezaten sustatzea: ekitaldiak, jardunaldiak...
- 4.3.16. Ekitaldi bat antolatzea urtero, non UPV/EHUK beren enbaxadoreen aitorpena eta izendapena egingo duen. Ekitaldira euskal gizarte ordezkariak duten gizarte, politika, ekonomia eta kultura arloetako ordezkariak gonbidatuko dira.

5 PROPOSAMENEN DESKRIBAPENA

Jarraian, proposatutako ekintzen xehetasunak ematen dira, alderdi hauei erreparatuta: ekintzaren hartzailleak, ekintza bakoitzaren deskribapen laburra, ekintza bakoitzaren helburua edo helburuak, prozesua (plana betetzea) eta emaitzak (ekintzaren eraginkortasuna) ebaluatzeko adierazleak, ekintzaz arduratuko den zerbitzu, organo edo errektoreordetza, eta lehentasun maila.

ORGANIGRAMA

4.1. EGITURAZKO EKINTZAK

EKINTZA	4.1.1. Komunikazio Zuzendaritza bat sortzea, eta UPV/EHUko komunikazioaz arduratuko den komunikazio zuzendaria hautatzea.
DESKRIBAPENA	Beharrezkoa da UPV/EHUn Komunikazio Zuzendaritza bat sortzea, komunikazioaren arloa bultzatzeko, gidatzeko, bateratzeko eta horri buruzko erabaki egokiak hartzeko, errektoreak zehaztutako komunikazio irizpide estrategikoak aintzat hartuta. Egitura horrek, eraginkorra izateko, izaera teknikoa eta/edo profesionala izan behar du.
HELBURUA	UPV/EHUren komunikazio ekintzak zuzentzea, lideratzea, koordinatzea, bateratzea eta horietan laguntzea.
PROZESUAREN EBALUAZIOA	UPV/EHUko Komunikazio Zuzendaritza sortzea.
EMAITZEN EBALUAZIOA	UPV/EHUko komunikazioa gidatuko duen pertsona bat izendatzea.
ARDURADUNA	Gobernu taldea.
LEHENTASUNA	Handia.

4.1. EGITURAZKO EKINTZAK

EKINTZA	4.1.2. Webgunearen irudiaz, erabilgarritasunaz eta edukien kudeaketaz arduratuko den webmaster bat izendatzea.
DESKRIBAPENA	Beharrezkoa da web arloaren arduraduna izendatzea. Pertsona horrek web arlo horren taldea eta lanak gidatuko ditu, IKTekin koordinatuta.
HELBURUA	UPV/EHUren sareko hedabideen erabiltzaile esperientziaz arduratuko den talde bat sortzea, unibertsitatearen barnean. Webguneari lotutako lanak argitzea, zentralizatzea eta bizkortzea.
PROZESUAREN EBALUAZIOA	Webmaster plaza sortzea.
EMAITZEN EBALUAZIOA	Arduraduna izendatzea.
ARDURADUNA	Gobernu taldea.
LEHENTASUNA	Handia.

4.1. EGITURAZKO EKINTZAK

EKINTZA	4.1.3. UPV/EHUko komunikazio egitura berrantolatzea.
DESKRIBAPENA	Komunikazio Zuzendaritza sortzean, ezinbestekoa izango da UPV/EHUko komunikazioaren arloan diharduten zerbitzuak, organoak eta pertsonak berriro antolatzea. Guk proposatzen dugu Zuzendaritza horrek estaldura ematea eta erantzukizunak izatea hainbat arlotan: Komunikazio Bulegoa, Web Arloa, Datuen Bulegoa (UPV/EHU zenbakitan) eta Ekitaldien Bulegoa (protokoloa), gutxienez, UPV/EHUren komunikazio egitura osatzen duten pertsona eta elementu horien sinergiak zentralizatzeko eta horietaz baliatzeko (antolatzeko moduaren arabera, barnean har dezake ere Argitalpen Zerbitzuaren eta merchandisingeko UPV/EHUko denden ardura). Komunikazio Zuzendaritzak gidatuko du, halaber, UPV/EHUko ikastegietako komunikazio arduradunak bilduko dituen Komunikazio Kontseilua (ikus 4.1.6 ekintza).
HELBURUA	UPV/EHUko komunikazio egituraren efikazia hobetzea. UPV/EHUko komunikazio egituraren efizientzia hobetzea.
PROZESUAREN EBALUAZIOA	Antolakuntza berri bat aurkeztea, UPV/EHUko Gobernu Kontseiluan.
EMAITZEN EBALUAZIOA	UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak antolakuntza berria onartzea.
ARDURADUNA	Gobernu taldea.
LEHENTASUNA	Handia.

4.1. EGITURAZKO EKINTZAK

EKINTZA	4.1.4. Komunikazio Zuzendaritzari beharrezkoak diren baliabide materialak eta giza baliabideak ematea, barne eta kanpo komunikazioa hobetzeko prozesuak gidatzeko. Hala, organoen ahaleginak koordinatuko ditu (ikastegiak, errektoreordetzak, gerenteordetzak, zerbitzuak, etab.), eragileei aholkularitza emango die, ekimenak babestuko ditu, komunikazio ekintzetan parte hartuko du, informazio fluxuak antolatuko ditu, informazioa sailkatuko du, eta UPV/EHUren proiektzioa zabaltzeko materialak sortzen lagunduko du.
DESKRIBAPENA	UPV/EHUko Komunikazio Planaren bitarteko nagusia Komunikazio Zuzendaritza da. Izan ere, zuzendaritza horrek martxan jarriko ditu ekintzak, haien garapena gidatuko du, helburuak betetzen ari direla zainduko du, eta prozesua nahiz emaitzak ebaluatuko ditu. Horrenbestez, funtsezkoa da baliabide materialak eta giza baliabideak jartzea haren esku, UPV/EHUko xede diren hartzaile guztiei begirako ekintzak pixkanaka abian jartzeko. Bi postu sortzeaz ari gara hitz egiten: bat, diseinu grafikoko profilekoa, eta bestea, identitate eta marka irudi edo <i>Branding</i> profilekoa, UPV/EHU marka kudeatzeko. Ekintza horren barruan, UPV/EHUko komunikazio egituraren tamaina eta diseinua berriro zehaztea sartzen da, eta hura Komunikazio Zuzendaritza gisa birmoldatzea, unibertsitatearen premiei egokitzeko.
HELBURUA	Komunikazio Zuzendaritza UPV/EHUko barne eta kanpo komunikazio fluxuen koordinatzaile, bideratzaile eta bitarteko bihurtzea.
PROZESUAREN EBALUAZIOA	UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak antolakuntza berria onartzea.
EMAITZEN EBALUAZIOA	Bi profil berri horiek UPV/EHUko Komunikazio Bulegoan txertatzea.
ARDURADUNA	Gobernu taldea.
LEHENTASUNA	Handia.

4.1. EGITURAZKO EKINTZAK

EKINTZA

4.1.5.

Datu estatistikoak kudeatzeko zerbitzua bultzatzea eta indartzea, informazio estatistikoa zentralizatzeko eta bateratzeko.

DESKRIBAPENA

Datuen bulegoa indartu nahi da; hartara, UPV/EHUren datu estatistikoaren produkzioari lotutako guztia bertan bateratu eta koordinatuko da. Bulegoari ikuspegi orokorragoa eman behar zaio, eta zehaztasun handiagoa, unibertsitate errealitatearekiko.

Hainbat informazio iturri egotea saihestu nahi da, horrek UPV/EHUren datu estatistikoaren produkzioa distortsionatzen duelako (ikasle kopurua, egresatuena, doktorego tesiena, langileena, etab.).

Bulego honek bereziki zainduko ditu UPV/EHUrentzat lehentasuna duten sailkapenen (rankingak) eskakizunak betetzeko beharrezkoak diren datuak.

Datuen Bulegoen zerbitzu honek bereziki zaindu beharko luke gainerako organo eta/edo zerbitzuekiko koordinazioa, etorkizuneko Komunikazio Zuzendaritzaren barruan (ikus 1.4 puntua).

HELBURUA

UPV/EHUren datu estatistikoak bateratzea eta haien kalitatea handitzea.

PROZESUAREN EBALUAZIOA

Datuen Bulegoa sortzea (datu estatistikoaren zerbitzua).

EMAITZEN EBALUAZIOA

Datuen barne iturriak bateratzea eta zentralizatzea.

ARDURADUNA

Errektorearen kabinetea.

LEHENTASUNA

Ertaina.

4.1. EGITURAZKO EKINTZAK

EKINTZA	4.1.6 Barruko lan dinamika egonkor bat finkatzea, ikastegietan oinarrituta. Dinamika hori Komunikazio Zuzendaritzaren euskarria izango da, Komunikazio Plana hedatzeko. Lan dinamika horretan, ikastegi bakoitzeko barne eta kanpo komunikazio arduradunek parte hartuko dute, Komunikazio Zuzendaritzarekin lotura lanak egiteko.
DESKRIBAPENA	Ikastegi bakoitzak komunikazio arduradun bat izango du, eta arduradun hori izango da ikastegiko ordezkaria Komunikazio Kontseiluan. Era berean, Komunikazio Bulegoarekin arituko da une oro lanean, UPV/EHUko barne eta kanpo komunikazioari lotutako ekintzetan. Ikastegiko komunikazio arduradunak arloa dinamizatuko du bere ikastegian, sailekin harremanetan egongo da, eta beheranzko (Komunikazio Bulegotik ikastegi, sail, irakasle-ikertzaile, AZPko langile eta ikasleei) eta goranzko informazioa (horietatik Komunikazio Bulegora) behar bezala helaraztea ahalbidetuko du.
HELBURUA	UPV/EHUren barne kohesioa eta parte hartzea indartzea.
PROZESUAREN EBALUAZIOA	Komunikazio Kontseiluaren urteko bilera kopurua.
EMAITZEN EBALUAZIOA	Ebaluazio kualitatiboa: <i>Focus Group</i> ak egitea ikastegietako arduradunekin. Lau urtean behin.
ARDURADUNA	Gobernu taldea.
LEHENTASUNA	Handia.

KOMUNIKAZIO EUSKARRIAK

4.1. EGITURAZKO EKINTZAK

EKINTZA	4.1.7. UPV/EHUko webgunea berritzea, bai bere diseinu grafikoa bai bere arkitektura (barne egituraren antolaketa).
DESKRIBAPENA	UPV/EHUko webguneari diseinu grafiko berri bat eman nahi zaio, erakundearen marka irudiarekin bat etorriko dena eta gure inguruko eta/edo gurearen antzeko neurria eta konplexutasuna duten beste unibertsitate batzuek dutenekin parekarria izango dena. Era berean, beharrezkoa da webgunearen barne arkitektura berriro antolatzea, eta bereiztea, alde batetik, kanpora begirako zatia, eta, bestetik, Intraneta. Arkitektura horrek filosofia aldaketa bat adieraziko du; hala, gure barne egitura administratiboaren adierazpena izateari utzi, eta UPV/EHUko kanpo eta barne komunikazio euskarri nagusia izango da.
HELBURUA	UPV/EHUko barne eta kanpo komunikazioa hobetzea. UPV/EHUren kanpo irudia indartzea eta hobetzea. UPV/EHUko kide izatearen sentimendua eta barne kohesioa indartzea. UPV/EHUren gizarte proiektzioa indartzea, euskal gizarteko eragileekiko (instituzio, ekonomia eta gizarte eragileak) lankidetza eskaintza nabarmenduta.
PROZESUAREN EBALUAZIOA	Webgune berria edukitzea.
EMAITZEN EBALUAZIOA	Ebaluazioa egitea Intraneteko zundaketaren bidez (irakasle-ikertzaileak, AZPko langileak, ikasleak, ehualumni) eta Interneten norberak betetzeko zundaketaren bidez (orientatzaileak, enpresak, etab.).
ARDURADUNA	Komunikazio Zuzendaritza.
LEHENTASUNA	Handia.

4.1. EGITURAZKO EKINTZAK

EKINTZA	4.1.8. Webgune korporatiboaren Estilo Liburua egitea eta zabaltzea.
DESKRIBAPENA	Webgune korporatiboaren Estilo Liburua egin nahi da, eta gero gida bezala erabiliko da UPV/EHUko webgune berriaren edukiak elikatzeko, mantentzeko eta kudeatzeko lanetan. Horrez gain, estilo liburu horren berri eman behar zaie UPV/EHUko webgunearen edukiak sartzeaz eta kudeatzeaz arduratzen diren pertsoneri.
HELBURUA	Webguneko edukien forma homogeneizatzea. UPV/EHU markaren irudia indartzea, webgunean.
PROZESUAREN EBALUAZIOA	Web korporatiboaren estilo liburuaren dokumentua edukitzea. UPV/EHUko webgunea administratzen duten pertsonen artean zabaltzea.
EMAITZEN EBALUAZIOA	Estilo liburuak izandako oihartzuna. Intraneteko zundaketa. Lau urtean behin. Estilo liburuaren erabilera. Intraneteko zundaketa. Lau urtean behin.
ARDURADUNA	Romunikazio Zuzendaritza.
LEHENTASUNA	Handia.

4.1. EGITURAZKO EKINTZAK

EKINTZA	4.1.9. Komunikazioaren arloko larrialdi kabineteko protokolo bat egitea.
DESKRIBAPENA	Protokolo bat landu nahi da, non komunikazio arloan egin beharreko jarduerak jasoko diren UPV/EHUK larrialdi bati aurre egin behar dionean. Protokolo horrek zehaztasunez finkatuko du Larrialdi Kabinetearen eraketa, baita egin beharreko urratsak eta ekintzak ere.
HELBURUA	Erantzun bizkorra ematea, erakunde larrialdi baten aurrean. Erakundearen erantzuna hobetzea, larrialdi egoeren aurrean.
PROZESUAREN EBALUAZIOA	Larrialdi Kabinetearen Protokoloari dagokion dokumentua edukitzea. Larrialdi Kabineteko kideak izendatzea.
EMAITZEN EBALUAZIOA	Larrialdi Kabinetearen jardueren txostena-memoria.
ARDURADUNA	Komunikazio Zuzendaritza.
LEHENTASUNA	Ertaina.

IKASTETXEAK

4.2. KANPO KOMUNIKAZIO EKINTZAK

EKINTZA	4.2.1. Batxilergoko eta LHko ikastetxeetako orientatzaileentzako material espezifiko gehiago sortzea, eta material hori hobetzea.
HARTZAILEAK	EAEko batxilergoko eta LHko ikastetxeetako orientatzaileak.
DESKRIBAPENA	Asmoa da orientatzaileentzako material espezifikoak prestatzea, eguneroko lanean laguntza modura erabil ditzaten. Arreta berezia jarriko da ekitaldi hauetarako materialean: azokak, Ateak Zabaltzeko Egunak, ikastegietarako bisitak, etab. Oro har, eduki hauek izango dituzte: graduen curriculum garapena, prestakuntzaren deskribapena eta ikastegien ezaugarriak. Gainera, beste eduki batzuk ere sartu ahal izango dira, hala nola: jasotako prestakuntzaren deskribapena, profil profesionalak, profesionalki egin beharreko lanak, irteera profesionalak, laneratzea, ikasleen ostatua, haren prezioak, garraioa, beken programak, diru laguntzak, etab.
HELBURUA	Orientatzaileei informazioa ematea eta haien lana erraztea.
PROZESUAREN EBALUAZIOA	Materiala sortzea.
EMAITZEN EBALUAZIOA	Ebaluazio kualitatiboa: <i>Focus Group</i> ak, ikastetxeetako orientatzaileen artean. Lau urtean behin.
ARDURADUNA	Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko Errektoreordetza (IAZ).
LEHENTASUNA	Ertaina.

4.2.

KANPO KOMUNIKAZIO EKINTZAK

EKINTZA	4.2.2. Batxilergoko eta LHko ikasleak informatzeko material espezifiko gehiago sortzea, eta material hori hobetzea, ikasleek interes betekotzat jotzen dituzten gaien inguruan: graduak, lan aukerak, ikasteko laguntzak eta bekak, unibertsitate ostatuak, garraioak, etab.
HARTZAILEAK	EAEko ikastetxeetako batxilergoko eta LHko ikasleak.
DESKRIBAPENA	Batxilergoko eta LHko ikasleentzat bereziki interesgarriak diren gaiei buruzko informazioa sartu nahi da azoka, Ateak Zabaltzeko Egun, ikastegietarako bisita eta antzeko ekimenetarako prestatzen diren materialetan. Gainera, graduen curriculum garapenari, prestakuntzaren deskribapenari eta ikastegien ezaugarriei buruzko informazioa ere sartuko da: hartutako prestakuntzaren deskribapena, profil profesionalak, profesionalki egin beharreko lanak, irteera profesionalak, laneratzea, ikasleentzako ostatua, haren prezioak, garraioa, etab.
HELBURUA	Batxilergoko eta LHko ikasleentzat bereziki interesgarriak diren gaiei buruzko informazioa ematea.
PROZESUAREN EBALUAZIOA	Materialak edukitzea.
EMAITZEN EBALUAZIOA	Zundaketak egitea azoketan eta Ateak Zabaltzeko Egunetan. Lau urtean behin.
ARDURADUNA	Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko Errektoreordetza (IAZ).
LAGUNTZAILEA	Gradu Ikasketen eta Berrikuntzaren arloko Errektoreordetza.
LEHENTASUNA	Ertaina.

HEDABIDEAK ETA EUSKAL GIZARTEA

4.2. KANPO KOMUNIKAZIO EKINTZAK

EKINTZA	4.2.3. UPV/EHUko ikastegien antolakuntza berria zabaltzea euskal gizartean (euskal gizartea, hedabideak, ikastetxeak, unibertsitateko kideak).
HARTZAILEAK	Oro har, euskal gizartea, arreta berezia jarrita kolektibo hauengan: hedabideak, ikastetxeak (orientatzaileak eta ikasle izan daitezkeenak) eta unibertsitateko kideak (irakasle-ikertzaileak, AZPko langileak, ikasleak, ehualumni).
DESKRIBAPENA	Kanpaina bat antolatu nahi da, ikastegien antolakuntza berria (ikastegien bat egitea, berriak sortzeko) eta ikastegi berrien izenak ezagutzera emateko. Komunikazio kanpaina UPV/EHUren barruan nahiz kanpoan egingo da. Hau da, publizitate tarteak erosi beharko dira (publizitatea irratian, sare sozialetan, hiriko euskarrietan, etab.) gizartearengan iristeko eta ikastegi berrien antolakuntza eta izenak azaltzeko. Aldi berean, kanpaina horrek ikastetxeetara iritsi beharko du; eta horri begira, material berria egingo da, bigarren hezkuntzako eta LHko ikasleei eta orientatzaileei azaltzeko ikastegi berriak nola antolatzen diren eta zer izen jarri zaien. Amaitzeko, UPV/EHUren barruko hartzaileengana (irakasle-ikertzaileak, AZPko langileak, ikasleak eta ehualumni) iritsi beharko dugu, ikastegi berrien antolakuntza eta izenak ezagutzera emateko.
HELBURUA	UPV/EHUko ikastegi berrien antolakuntza eta izen berriak komunikatzea.
PROZESUAREN EBALUAZIOA	Hedabideetan agertzea: prentsa, irratia, sare sozialak, euskarri fisikoak.
EMAITZEN EBALUAZIOA	Zundaketa kuantitatiboa. Lau urtean behin. Prentsan izandako eraginari buruzko txostena. Lau urtean behin.
ARDURADUNA	Komunikazio Zuzendaritza.
LEHENTASUNA	Ertaina.

4.2. KANPO KOMUNIKAZIO EKINTZAK

EKINTZA	4.2.4. Adituak zerbitzua zabaltzea, hedabideen artean.
HARTZAILEAK	EAEko eta espainiar estatuko paperezko eta ikus-entzunezko hedabideak.
DESKRIBAPENA	Adituak zerbitzua hobeto zabaltzea nahi da hedabideetan, hots: prentsa, irratia eta telebista. Horretarako proposatzen dugu aldizkako bidalketak egitea posta elektronikoaren bidez, Adituak zerbitzuaz oroitzeko, eta zerbitzuan lankidetzan diharduten pertsonen zerrenda eguneratua bidaltzea, aldaketak daudenean.
HELBURUA	UPV/EHUri lotutako pertsonen presentzia areagotzea hedabideetan. Euskal gizarteari ezagutza transferitzeko prozesuak hobetzea.
PROZESUAREN EBALUAZIOA	Adituak zerbitzuko zerrenden aldizkako bidalketa (hiru hilean behin) eguneratua.
EMAITZEN EBALUAZIOA	Bidalketen eta oroigarrien kopurua. Lau urtean behin.
ARDURADUNA	Komunikazio Zuzendaritza.
LAGUNTZAILEA	Ikastegietako komunikazio arduradunak.
LEHENTASUNA	Ertaina.

4.2. KANPO KOMUNIKAZIO EKINTZAK

EKINTZA	4.2.5. UPV/EHUko komunikazio estrategia globala zehaztea, sare sozialen arloan.
HARTZAILEAK	Sare sozialetako erabiltzaileak.
DESKRIBAPENA	2.0 komunikazio estrategia bat ezarri nahi da, gaur egun UPV/EHUK erabilitako sare sozialetan oinarrituta, lortu beharreko helburuak eta erabili beharreko tresnak zehazteko. 2.0 komunikazio estrategia hori garatzeko, beharrezkoa da Komunikazio Bulegoaren barruan horretaz arduratuko den pertsona izendatzea.
HELBURUA	UPV/EHUren presentzia errotzea, sare sozialetan. Komunikazio eta informazio harremanak hobetzea eta indartzea gure ikasle izan daitezkeen bigarren hezkuntzako ikasleekin.
PROZESUAREN EBALUAZIOA	2.0 komunikazio estrategia bat diseinatzea. Sare sozialen arduradun bat edukitzea.
EMAITZEN EBALUAZIOA	UPV/EHUK sarean duen ospearen eta oihartzunaren analisia. Lau urtean behin.
ARDURADUNA	Komunikazio Zuzendaritza.
LEHENTASUNA	Ertaina.

4.2. KANPO KOMUNIKAZIO EKINTZAK

EKINTZA	4.2.6. UPV/EHUK maiztasun batez egindako ekitaldiak antolatzeko ildoak eta irizpideak jasoko dituen protokolo bat egitea.
HARTZAILEAK	UPV/EHUK antolatutako ekitaldietara joaten diren pertsonak.
DESKRIBAPENA	UPV/EHUK euskal gizarte osoarentzat edo, nolanahi ere, kanpoko xede publikoentzat antolatutako ekitaldietarako gutxieneko ildo eta irizpide batzuk ezarri nahi dira. Ekitaldi hauen alderdi batzuk homogeneousatu eta bateratu nahi ditugu, UPV/EHUren marka bultzatzen; hala, irudi koherente bat zabaltzeko nahi dugu, erabilitako euskarri eta komunikazio elementu guztietan. Elementu horien artean sartzen dira, besteak beste: ekitaldietako ikurrak, UPV/EHUK antolatutako ekitaldietan lankidetzan diharduten pertsonen jantziak, giza baliabideen erabilera, mikroak eta antzeko elementuen identifikazioa, hondoko elementu komunak erabilera, altzarien identifikazioa, etab.
HELBURUA	UPV/EHU markaren irudia bere komunikazio estrategiarekiko koherentzia transmititzea eta zabaltzea.
PROZESUAREN EBALUAZIOA	Ekitaldiak antolatzeko protokoloa prestatzea.
EMAITZEN EBALUAZIOA	Protokoloa erabiltzea ekitaldietan. Pressclipping.
ARDURADUNA	Komunikazio Zuzendaritza.
LEHENTASUNA	Ertaina

NAZIOARTEA

4.2. KANPO KOMUNIKAZIO EKINTZAK

EKINTZA	4.2.7. Datuen barne bilketarako ildoak ezartzea, unibertsitateen nazioarteko sailkapenetan (rankingak) UPV/EHUren presentzia ahalbidetzeko.
HARTZAILEAK	Nazioarteko komunitatea: ikertzaileak, ikertaldeak, nazioarteko ikasle izan daitezkeenak.
DESKRIBAPENA	Datuen fluxuak zentralizatuko dituen eta inputak zein outputak optimizatuko dituen Datuen Bulego berritik abiatuta (ikus 4.1.5 ekintza), nazioarteko unibertsitateen sailkapenetan (Shangai Ranking, Times Higher Education, QS World University Rankings) eskatutako datu guztiak eduki nahi dira, UPV/EHUren presentzia denetan ziurtatzeko.
HELBURUA	Europan eta munduan dugun irudia eta posizionamendua hobetzea. Nazioarteko ikasle gehiago eta hobeak erakartzea.
PROZESUAREN EBALUAZIOA	Sailkapenetan eskatutako datuak edukitzea.
EMAITZEN EBALUAZIOA	Gure presentzia Shanghaiko Rankinean. Urtekoa. Gure presentzia Times Higher Education-en (THE) Urtekoa. Gure presentzia QS World University Rankinean. Urtekoa.
ARDURADUNA	Komunikazio Zuzendaritza.
LAGUNTZAILEA	Ikerketen arloko Errektoreordetza eta Graduondoko Ikasketen eta Nazioarteko Harremanen arloko Errektoreordetza.
LEHENTASUNA	Handia.

4.2.

KANPO KOMUNIKAZIO EKINTZAK

EKINTZA	4.2.8. Unibertsitateko kideei (batez ere, irakasle-ikertzaileei) UPV/EHUk unibertsitateen nazioarteko sailkapenetan duen lekuaren berri ematea, beren komunikazio elementuetan informazio hori txerta dezaten.
HARTZAILEAK	Unibertsitateko kideak: irakasleak eta Ikertzaileak. Nazioarteko komunitatea: ikertzaileak, ikertaldeak, nazioarteko ikasle izan daitezkeenak.
DESKRIBAPENA	Komunikazio Zuzendaritzak unibertsitateen nazioarteko sailkapenetan (rankingak) UPV/EHUk duen presentziaren berri eman nahi die unibertsitateko kideei; hartara, nazioarteko lekuren batera joaten direnean (biltzarrek, irakaskuntza, jardunaldiak, txostenak, hitzaldiak, etab.) presentzia hori aipatuko dute.
HELBURUA	Europan eta munduan dugun irudia eta posizionamendua hobetzea. Nazioarteko ikasle gehiago eta hobeak erakartzea.
PROZESUAREN EBALUAZIOA	Presentzia horren berri ematen duten komunikazio elementuak (esku orriak, diptikoak, DVDak, CDak, etab.).
EMAITZEN EBALUAZIOA	Nazioarteko ikasleen kopurua, graduondoko ikasketetan.
ARDURADUNA	Komunikazio Zuzendaritza.
LAGUNTZAILEA	Graduondoko Ikasketen eta Nazioarteko Harremanen arloko Errektoreordetza.
LEHENTASUNA	Ertaina.

4.2.

KANPO KOMUNIKAZIO EKINTZAK

EKINTZA	4.2.9. Komunikazio ekintzen plan bat egitea, UPV/EHUko Master eta Doktoregoen Latinoamerikako sarerako.
HARTZAILEAK	UPV/EHUko Master eta Doktoregoen Latinoamerikako sarea. Euskal gizartea. Unibertsitateko kideak.
DESKRIBAPENA	UPV/EHUko Master eta Doktoregoen Latinoamerikako sarearen estrategia eta orientazioa hobetzeko komunikazio ekintzen plan bat egin nahi da; izan ere, orain arte, oso gutxi ezagutzen da Latinoamerikako herrialdetan, euskal gizartean eta unibertsitateko kideen artean.
HELBURUA	UPV/EHUko Master eta Doktoregoen Latinoamerikako sarea ezagutzera ematea. UPV/EHUren presentzia baliozkotzea, UPV/EHUko Master eta Doktoregoen Latinoamerikako sarean.
PROZESUAREN EBALUAZIOA	Komunikazio ekintzen plana edukitzea.
EMAITZEN EBALUAZIOA	Euskal gizartean eginiko zundaketa. Lau urtean behin. Unibertsitateko kideen arteko zundaketa Intraneten. Lau urtean behin.
ARDURADUNA	Graduondoko Ikasketen eta Nazioarteko Harremanen arloko Errektoreordetza.
LAGUNTZAILEA	Komunikazio Zuzendaritza.
LEHENTASUNA	Ertaina.

4.2.

KANPO KOMUNIKAZIO EKINTZAK

EKINTZA	4.2.10. Euroeskualdeko Nazioarteko Bikaintasun Campusaren helburuei eta jarduerai lotutako komunikazio estrategia zehaztea.
HARTZAILEAK	Euroeskualdeko Nazioarteko Bikaintasun Campusa Euskal gizartea. Unibertsitateko kideak.
DESKRIBAPENA	Komunikazio ekintzen plan bat egin nahi da, Euroeskualdeko Nazioarteko Bikaintasun Campusaren estrategia eta orientazioa hobetzeko, eta haren oihartzuna areagotzeko ingurune hurbilean, euskal gizartean eta unibertsitateko kideen artean.
HELBURUA	Euroeskualdeko Nazioarteko Bikaintasun Campusa ezagutzera ematea. UPV/EHUren presentzia baliozkotzea, Euroeskualdeko Nazioarteko Bikaintasun Campusean.
PROZESUAREN EBALUAZIOA	Komunikazio ekintzen plana edukitzea.
EMAITZEN EBALUAZIOA	Euskal gizartean zundaketa bat egitea. Lau urtean behin. Unibertsitateko kideen arteko zundaketa, Intraneten. Lau urtean behin.
ARDURADUNA	Hedakuntzaren eta Transferentziaren arloko Errektoreordetza.
LAGUNTZAILEA	Komunikazio Zuzendaritza.
LEHENTASUNA	Ertaina.

4.2.

KANPO KOMUNIKAZIO EKINTZAK

EKINTZA	4.2.11. Sinposio bat antolatzea, non atzerrian lana egiten duten euskal irakasleek eta ikertzaileek parte hartuko duten. Euskal diaspora zientifikoaren sarea sortzeko abiagune izatea lortu nahi da.
HARTZAILEAK	Euskal diasporaren irakasleak eta ikertzaileak.
DESKRIBAPENA	Euskal irakasle eta ikertzaile asko lanean ari dira atzerrian, eta ez dute harremanik, ez haien artean, ez EAEko euskal komunitate akademikoarekin. Mundu osoko unibertsitateetan ikertzen eta prestatzen ari dira elkarren berri izan gabe, elkarri lagundu gabe eta beren sinergieiei etekinik atera gabe. Idea, beraz, harremanetarako gun bat ezartzea da, baliagarria izango dena haien arteko elkarrizketak bultzatzeko, ideiak partekatu eta kontrastatzeko, eta ezagutza sortu eta transmititzeko. Espazio horren laguntzaz, EAEn ezagutza sortzen jarraituko dugu, munduan dagoen edozein pertsonaren parte hartzearekin. Sinposio bat antolatu nahi da, eta hiru eta bost lagun artean gonbidatu nahi dira parte hartzera. Sinposio horretan, oinarriak finkatu nahi dira munduan barrena lanean (unibertsitateetan, zentro zientifiko eta teknologikoetan, etab.) ari diren euskal irakasleek eta ikertzaileek osatuko duten euskal diaspora akademikoaren sare edo komunitate bat sortzeko.
HELBURUA	Euskal diaspora akademikoa bultzatzea, egituratzea eta garatzea. Euskal diaspora akademikoaren sarea sortzen hastea.
PROZESUAREN EBALUAZIOA	Sinposioa egitea.
EMAITZEN EBALUAZIOA	Euskal diaspora akademikoaren 4 pertsonak parte hartzea, gutxienez.
ARDURADUNA	Hedakuntzaren eta Transferentziaren arloko Errektoreordetza (EUSKAMPUS).
LAGUNTZAILEA	Komunikazio Zuzendaritza.
LEHENTASUNA	Ertaina.

4.2.

KANPO KOMUNIKAZIO EKINTZAK

EKINTZA	4.2.12. Campusa aldizkariaren ingelesezko bertsio labur bat egitea, hiru hilean behin, beste unibertsitate batzuen aurrean gure sustapenerako baliagarriak izan daitezkeen jardueren berri emateko.
HARTZAILEAK	Atzerriko unibertsitateak.
DESKRIBAPENA	Campusa digital bat egin nahi da, hiru hilean behin, ingelesez, aldi horretan UPV/EHUn izandako albiste eta ekitaldi nagusien berri emateko. Horren bidez, gure jarduera ezagutzera eman nahi dugu nazioartean. Dokumentu hori, formatu digitalean, UPV/EHUn datu-baseetan sartutako unibertsitateei bidaliko litzaieke.
HELBURUA	UPV/EHUn ezagutza areagotzea atzerriko unibertsitateen artean. UPV/EHUn irudia hobetzea atzerriko unibertsitateen artean.
PROZESUAREN EBALUAZIOA	Campusa aldizkariaren ingelesezko bertsioa sortzea.
EMAITZEN EBALUAZIOA	Atzerriko unibertsitateetara egindako bidalketen kopurua.
ARDURADUNA	Komunikazio Zuzendaritza.
LAGUNTZAILEA	Graduondoko Ikasketen eta Nazioarteko Harremanen arloko Errektoreordetza.
LEHENTASUNA	Ertaina.

Irakasleak eta ikertzaileak, eta AZPko langileak

4.3. BARNE KOMUNIKAZIO EKINTZAK

EKINTZA	4.3.1. Komunikazio gune birtualak (komunitateak) sortzea, informazio horizontala trukatzeko unibertsitateko kideen artean.
HARTZAILEAK	Ikastegi eta sailetako zuzendaritzak. Unibertsitateko kideak: irakasleak eta ikertzaileak, AZPko langileak eta ikasleak.
DESKRIBAPENA	Helburua da gune birtualak sortzea eta garatzea UPV/EHUren web berrian (intranet), karguagatik, posizioagatik edo egoeragatik arazo eta behar berberak dituzten pertsonentzat, informazioa trukatzeko eta eragiten dizkieten gaiez eztabaidatzeko. ‘Komunitate’ hauen adibideak dira sailetako zuzendariak, ikastegietako administrariak, sail bakoitzeko kideak, mugikortasun programetako ikasleak, etab. Egitura hierarkikoen kasuan (ikastegia edo saila), haren arduradunak kudeatuko lituzke gune hauek; egitura ez-hierarkikoen kasuan (mugikortasun programetako ikasleak edo sailetako zuzendariak), Web Arloko teknikariak.
HELBURUA	Komunikazio horizontala indartzea unibertsitateko kideen artean, haien beharren arabera. UPV/EHUko kide izatearen sentimendua indartzea.
PROZESUAREN EBALUAZIOA	Komunitateak sortzea.
EMAITZEN EBALUAZIOA	Sortutako komunitate kopurua, parte hartzaile kopurua eta interakzio kopurua.
ARDURADUNA	Egitura hierarkiko bakoitzeko zuzendaritza.
LAGUNTZAILEA	Komunikazio Zuzendaritza, Web Arloko teknikariak.
LEHENTASUNA	Ertaina.

4.3. BARNE KOMUNIKAZIO EKINTZAK

EKINTZA	4.3.2. UPV/EHU Marka Adierazteko Gidaren erabilera bultzatzea eta zabaltzea.
HARTZAILEAK	Unibertsitateko kideak: irakasleak eta ikertzaileak, AZPko langileak eta ikasleak.
DESKRIBAPENA	Erakunde marka adierazteko gida zabaldu eta ezagutzera eman nahi da unibertsitateko kideen artean, eta gogorarazi nahi zaie garrantzitsua dela UPV/EHUrentzat estandar batzuk mantentzea barne eta kanpo komunikazioan. Kontua ez da bakarrik unibertsitateko kide guztiei gida igortzea, haren erabilera egokia gogoraraztea baizik, horretarako posta elektronikoz bidalita, besteak beste, informazio idatziak eta oharrak; logoen, idazpuruen... erabileran zalantzak sor ditzaketen ohiko egoerak; jardunbide egokiak UPV/EHUren erakunde identitatearen erabileran; etab.
HELBURUA	Gidak unibertsitateko kideen artean duen presentzia eta ezagutza areagotzea. Gidaren erabilera indartzea.
PROZESUAREN EBALUAZIOA	Informazioa bidaltzea. Jarduera espezifikoak diseinatzea eta martxan jartzea.
EMAITZEN EBALUAZIOA	Unibertsitateko kideen arteko zundaketa, Intraneten. Lau urtean behin.
ARDURADUNA	Komunikazio Zuzendaritza.
LAGUNTZAILEA	Ikastegietako komunikazio arduradunak.
LEHENTASUNA	Ertaina.

4.3.

BARNE KOMUNIKAZIO EKINTZAK

EKINTZA	4.3.3. Nazioarteko ekitaldiak –biltzarrak, jardunaldiak, mintegiak, etab.– erakartzeko lana bultzatzea.
HARTZAILEAK	UPV/EHUko ikertzaileak eta ikertaldeak.
DESKRIBAPENA	Nazioarteko ekitaldi akademikoak gure ingurura erakartzeko estrategia bat diseinatzea. Horretarako, kontuan hartu beharko dira ikertaldeek zailtasunak, beharrak eta finantzaketa aukerak; estrategiak pentsatu beharko dira Europan guri buruzko ezagutza areagotzeko eta gure irudia hobetzeko; etab. Idea gauzatzeko, egokia izan daiteke horrelako ekitaldiak erakartzeko sustapen programa bat osatzea.
HELBURUA	Europar eta munduan dugun irudia eta posizionamendua hobetzea.
PROZESUAREN EBALUAZIOA	Sustapen programa sortzea.
EMAITZEN EBALUAZIOA	Egindako ekitaldi kopurua. Lau urtean behin.
ARDURADUNA	Komunikazio Zuzendaritza.
LAGUNTZAILEA	Errektorearen kabinetea, Graduondoko Ikasketen eta Nazioarteko Harremanen arloko Errektoreordea, Hedakuntzaren eta Transferentziaren arloko Errektoreordea, eta ikastegietako komunikazio arduradunak.
LEHENTASUNA	Ertaina.

4.3.

BARNE KOMUNIKAZIO EKINTZAK

EKINTZA	4.3.4. UPV/EHUK hedabideetan duen eragina unibertsitateko kideen artean zabaltzea eta haiekin partekatzea.
HARTZAILEAK	Unibertsitateko kideak: ikastegiak, irakasleak eta ikertzaileak, eta AZPko langileak.
DESKRIBAPENA	Errektorearen kabineteak eta komunikazio bulegoak urtero egiten duten memoriari etekina atera nahi zaio. Bertan, EAEko eguneroko idatzizko prentsan izandako eraginak jasotzen dira. Informazio bilketa bera berregin beharko litzateke (jasotzen denaz gainera, informazio berri gehiago jasotzeko egokitasuna aztertzea), eta zehaztu beharko lirateke, halaber, zabaldu beharreko edukiak, informazioa komunikatzeko formatua eta unibertsitateko kide guztiengana iristeko teknika egokienak.
HELBURUA	UPV/EHUren urteko inpaktu datuak zabaltzea, unibertsitateko kideen artean. Hedabideek UPV/EHUri buruz ematen duten irudiaren gainean unibertsitateko kideek duten auto-pertzepzioa hobetzea.
PROZESUAREN EBALUAZIOA	Informazioa jasotzeko fitxa berri bat edukitzea. Eraginari buruzko urteko txostena edukitzea. Emaitzak zabaltzea.
EMAITZEN EBALUAZIOA	Unibertsitateko kideen arteko zundaketa, Intraneten. Lau urtean behin.
ARDURADUNA	Komunikazio Zuzendaritza.
LAGUNTZAILEA	Ikastegietako komunikazio arduradunak.
LEHENTASUNA	Ertaina.

4.3.

BARNE KOMUNIKAZIO EKINTZAK

EKINTZA	4.3.5 UPV/EHUren BILATU berriro definitzea, UPV/EHU lanean diharduten pertsona guztien datuak bilduko dituen txantilo berri bat ezarrita.
HARTZAILEAK	Unibertsitateko kideak: irakasleak eta ikertzaileak, AZPko langileak, eta ikasleak.
DESKRIBAPENA	Gaur egungo BILATU ordezkatzeko duen aplikazio berri bat egin nahi da, zerbitzuak, unitateak, ikastegiak, sailak, langileak, eta abar kokatzeko. Horrez gain, organigramari buruzko informazioa edukiko du, hau da: noren mende dagoen zerbitzu edo unitate bat, zer zerbitzu dauden beste zerbitzu batzuen mende, elementuen arteko hierarkia, etab. Zerbitzuen eta unitateen kasuan, eduki beharko du ere haien funtzionalitateari eta erantzukizunei buruzko informazioa. Ikastegien eta sailen kasuan, adibidez, arduradun bakoitza zer arloz arduratzen den zehaztuko da, eskolak non ematen dituen adierazteaz gainera.
HELBURUA	Barne kohesioa hobetzea. Barne informazio fluxuak erraztea.
PROZESUAREN EBALUAZIOA	Organigrama edo mapa edukitzea.
EMAITZEN EBALUAZIOA	Organigramaren kontsulten barne kopurua. Urtekoa.
ARDURADUNA	Komunikazio Zuzendaritza.
LAGUNTZAILEA	Idazkaritza Nagusia, ikastegietako komunikazio arduradunak.
LEHENTASUNA	Ertaina.

4.3.

BARNE KOMUNIKAZIO EKINTZAK

EKINTZA	4.3.6. Irakasle-ikertzaileen eta AZPko langileen harrerarako oinarritzko dokumentu bat idaztea, langile berri bat UPV/EHUn lanean hasten denean zerbitzu eta sail guztiek bete behar dituzten jarraibide orokorrak eta komunak jasoko dituen.
HARTZAILEAK	Unibertsitateko kideak: AZPko langileak.
DESKRIBAPENA	AZPko langile berriei UPV/EHUn harrera egiteko prozesuaren ezaugarri komunak bilduko dituen dokumentua osatzea, irakasle-ikertzaileentzat dagoeneko egindakoaren parekoa. Dokumentua egiteko lana UPV/EHUko Gerentziak gidatuko du. Helburua jardun protokolo bat finkatzea da, UPV/EHUn langile berri bat sartzen denean aplikatzeko.
HELBURUA	UPV/EHUren barne kohesioa eta unibertsitateko kide izatearen sentimendua indartzea.
PROZESUAREN EBALUAZIOA	AZPko langileei harrera egiteko oinarritzko dokumentua.
EMAITZEN EBALUAZIOA	Ebaluazio kualitatiboa: <i>Focus Group</i> ak ikastegietako komunikazio arduradunekin. Lau urtean behin.
ARDURADUNA	Pertsonaleko Gerenteordetza.
LEHENTASUNA	Txikia.

4.3.

BARNE KOMUNIKAZIO EKINTZAK

EKINTZA	4.3.7. Komunikazio Bulegoaren zerbitzuen karta bat egitea, eta unibertsitateko kideen artean zabaltzea.
HARTZAILEAK	Unibertsitateko kideak.
DESKRIBAPENA	Komunikazio Bulegoari buruzko informazioa (egitura, helburuak, ikastegientzako zerbitzuak, zerbitzuentzako zerbitzuak, etab.) jasoko duen karta edo zerrenda egin nahi da. Gero, dokumentu hori zabalduko da unibertsitateko kideen artean.
HELBURUA	Komunikazio Bulegoa ezagutzera ematea, unibertsitateko kideen artean. Unibertsitateko estamentuen, organoen eta zerbitzuen arteko lankidetzaren hobetzea, komunikazioaren arloan.
PROZESUAREN EBALUAZIOA	Zerbitzuen karta edukitzea. Unibertsitateko kideen artean izandako zabalkundea.
EMAITZEN EBALUAZIOA	Komunikazio Bulegoaren nabaritasuna % 10 hobetzea (gaur egun % 62 da), unibertsitateko kideen artean (Intranet bidezko zundaketa).
ARDURADUNA	Komunikazio Zuzendaritza.
LAGUNTZAILEA	Ikastegietako komunikazio arduradunak.
LEHENTASUNA	Txikia.

4.3.

BARNE KOMUNIKAZIO EKINTZAK

EKINTZA	4.3.8. Irakasle-ikertzaileei zuzendutako barne kanpaina bat prestatzea, beren kanpo hedapenerako jardueretan UPV/EHUko kidetasuna eta harekiko lotura adierazteaz ardura daitezen.
HARTZAILEAK	Unibertsitateko kideak.
DESKRIBAPENA	Lortu nahi da UPV/EHUko irakasleek eta ikertzaileek UPV/EHUko kidetasuna berariaz eta zuzentasunez aipatzea kanpo hedapenerako jardueretan (biltzarretako parte hartzeak; artikulatuak; prentsako agerraldiak; lankidetzak prentsa idatzian, irrati eta telebistetan; parte hartzeak jardunaldietan, hitzaldietan, mahai inguruetan, etab.). Gure unibertsitatearen izenaren erabilera okerra saihestu nahi da (batzuetan, soilik UPV eta beste batzuetan, soilik EHU). Proposamenean, posta elektronikoko informatibo bat bidaliko da, eta paperezko eskuorri bat sartuko da kutxatilategi guztietan.
HELBURUA	UPV/EHUko kide izatearen sentimendua indartzea. Euskal gizarteari UPV/EHUK egindako jardueren berri ematea. UPV/EHUren marka irudia indartzea. UPV/EHUK gizarteari egindako ekarpena ahal bezain errentagarri bihurtzea.
PROZESUAREN EBALUAZIOA	Kanpaina egitea.
EMAITZEN EBALUAZIOA	Hitzordu okerren kopurua identifikatzea. Lau urtean behin.
ARDURADUNA	Komunikazio Zuzendaritza.
LAGUNTZAILEA	Ikastegietako komunikazio arduradunak.
LEHENTASUNA	Ertaina.

4.3. BARNE KOMUNIKAZIO EKINTZAK

EKINTZA	4.3.9. UPV/EHU markaren ataria sortzea, eta unibertsitateko kideen artean ezagutzera ematea.
HARTZAILEAK	Unibertsitateko kideak.
DESKRIBAPENA	UPV/EHU markaren atari bat sortu nahi da, UPV/EHU marka eta haren askotariko aplikazioak erabiltzeko dokumentu eta irizpide guztiak biltzeko. Webgunean egongo den espazio horretan, besteak beste, dokumentu hauek jasoko dira: UPV/EHU Marka Adierazteko Gida, UPV/EHUren gizarte sareen erabileren eta estiloaren gida, UPV/EHUren webgunearen estilo liburua (egiteko dagoena), nortasun korporatiboko eskuliburua, etab. Atari horretan jarriko dira, halaber, UPV/EHUko logoaren bertsioak, aurkezpenak eta dokumentuak egiteko txantiloiak, UPV/EHUko tipografia gaztelaniaz eta euskaraz, etab.
HELBURUA	UPV/EHU marka bultzatzea.
PROZESUAREN EBALUAZIOA	UPV/EHU markaren ataria sortzea.
EMAITZEN EBALUAZIOA	Markaren ataria ezagutzera ematea unibertsitateko kideen artean. Intraneteko zundaketa. Lau urtean behin. Unibertsitateko kideek egindako bisita kopurua.
ARDURADUNA	Komunikazio Zuzendaritza.
LEHENTASUNA	Ertaina.

IKASLEAK

4.3. BARNE KOMUNIKAZIO EKINTZAK

EKINTZA	4.3.10. Komunikazio gune birtualak (komunitateak) sortzea ikasleen ordezkaritza mailen artean, informazio horizontalaren eta bertikalaren trukea indartzeko (noranzko bikoia) UPV/EHU oro har, eta haren ikastegietan, bereziki.
HARTZAILEAK	Ikasleen ordezkaritza organoak, ikasleen ordezkaritza, ikasleak.
DESKRIBAPENA	Helburua da gune birtualak sortzea UPV/EHUren web gune berrian, ikasleen ordezkaritza organoentzat, ikasleen ordezkaritzarentzat eta ikasleentzat (ordezkaritza egokirik ez dagoenean), beren intereseko informazioa zabaltzeko, trukatu, bildu eta partekatzeko. Komunitate hauen bidez, informazio interesgarria trukatu ahal izango dute ikasleek (arautegiak eguneratzea, aktak, erabakiak, etab.).
HELBURUA	Komunikazioa indartzea ikasleen ordezkaritza organoen, ikasleen ordezkaritzen eta ikasleen artean.
PROZESUAREN EBALUAZIOA	Komunitateak sortzea.
EMAITZEN EBALUAZIOA	Parte hartzaile kopurua komunitateetan.
ARDURADUNA	Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko Errektoreordetza.
LAGUNTZAILEA	Komunikazio Zuzendaritza, Ikasleen Kontseiluak.
LEHENTASUNA	Ertaina.

4.3.

BARNE KOMUNIKAZIO EKINTZAK

EKINTZA	4.3.11. UPV/EHUko ikasleek posta instituzionala erabil dezaten sustatzea. Ikaslearen esku egongo da bere postarekin zein lotura duen.
HARTZAILEAK	Ikasleak.
DESKRIBAPENA	Helburua da ikasleei azaltzea eta erraztea beren posta helbide pertsonalaren eta posta instituzionalaren arteko lotura prozesua (adibidez, lehen mailako ikasleei zuzendutako informazio kanpaina baten bidez). Horrela, ikasleak posta instituzionala erabiltzera ohitzen badira, haiengana heltzeko tresna sendo eta sinple bat izango dugu. Horrez gain, posta instituzionala erabiliz gero, ikaslea egresatu izatera igarotzen denean, neurri egokiak hartu ahal izango ditugu, besterik adierazi ezean, egresatu berriari posta instituzional bat esleitzeko. Ikasleei posta instituzionalaren bitartez zer dokumentazio bidali behar zaien zehaztu behar da, eta helbide instituzionala beren helbide pertsonalarekin lotzeko modua azaldu behar zaie; eginkizun hori, ordea, ikasleen erantzukizunpean geratuko da.
HELBURUA	Ikasleekiko komunikazio bide argi eta eraginkorrak finkatzea.
PROZESUAREN EBALUAZIOA	Lotutako posta kopurua. Urtekoa.
EMAITZEN EBALUAZIOA	Aktibo dauden posten kopurua. Urtekoa.
ARDURADUNA	Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko Errektoreordetza.
LAGUNTZAILEA	Komunikazio Zuzendaritza, ikasleen ordezkariak, ikastegiak.
LEHENTASUNA	Ertaina.

ehualumni

4.3. BARNE KOMUNIKAZIO EKINTZAK

EKINTZA	4.3.12. Gizarte, erakunde, politika, ekonomia eta kultura arloetako liderrak UPV/EHUrekin lotzea.
HARTZAILEAK	UPV/EHUko egresatuak.
DESKRIBAPENA	Ekintza hau ehualumni estrategiaren barruan dago, UPV/EHUko Gobernu Kontseiluan 2015ean aurkeztutakoa eta 2016ko otsailean onartutakoa. Gizarte lider nagusiekiko lotura bilatu nahi da, UPV/EHUUn jasotako prestakuntza nabarmenduta. Horretarako, haien presentzia areagotu nahi da ikastegiekin antolatutako ekitaldietan, bai akademikoetan bai ludikoetan, Campusa aldizkarian (egokia bada), etab. Ekintza honetan, zenbait egresatu hautatu nahi dira, UPV/EHUko 19 ikastegietan ikasketak egin dituztenak eta gaur egun gizarte lider direnak hainbat arlotan – erakundeak, politika, ekonomia, kulturak, kirola eta gizarteak-. Ikastegi bakoitzeko 5 bat pertsonaren lotura lortu nahi da. Antolatutako ekitaldietara gonbidatuko ditugu, beste egresatu batzuekin batera, eta bertan egotearen garrantzia azpimarratuko dugu. Pertsona ezagun horien kidetasunaren berri emateko, haien agerraldiak bultzatuko dira Campusa aldizkarian (elkarrizketa bat eginez, adibidez), ikastegietako aldizkari birtualetan, etab.
HELBURUA	UPV/EHUren gizarte presentzia areagotzea eta UPV/EHUren jardueren buruzko informazioa hobeto ematea. UPV/EHUko kide izatearen sentimendua areagotzea.
PROZESUAREN EBALUAZIOA	Pertsona ezagunen zerrenda.
EMAITZEN EBALUAZIOA	Lotutako pertsona ezagunen kopurua.
ARDURADUNA	Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko Errektoreordetza (IAZ).
LAGUNTZAILEA	Komunikazio zuzendaria, ikastegietako komunikazio arduradunak.
LEHENTASUNA	Ertaina.

4.3.

BARNE KOMUNIKAZIO EKINTZAK

EKINTZA	4.3.13. Ikasle egresatuen banaketa zerrendak eta/edo datu-baseak sortzea, helbide elektroniko bat adierazita.
HARTZAILEAK	UPV/EHUko egresatuak.
DESKRIBAPENA	Ekintza hau ehualumni estrategiaren barruan dago, UPV/EHUko Gobernu Kontseiluan 2015ean aurkeztutakoa eta 2016ko otsailean onartutakoa. Helburua da gure ikasle egresatuei, ikasketak amaitu ondoren, automatikoki posta instituzionaleko helbide bat ematea. Automatikoki sortutako posta instituzional horrek UPV/EHUko ikasle zireneko helbidea ordezkatzeko du. Helbide instituzional berria helbide elektroniko pertsonalera nola estekatu azalduko zaie; zeregin hori, ordea, ikasle egresatuen ardurapean geratzeko da. Halaber, ikasleei azalduko zaie zer egin behar duten UPV/EHUko informazio gehiago ez jasotzeko, eta UPV/EHUko ikasle egresatu izaten jarraitzeak zer onura dituen: Ikasle Ohien Elkarteko egresatuen datu-basean egotea, doako aldizkari bat jasotzea helbide elektronikoan, nahi adina gairi buruzko informazioa jasotzea (kategoria adierazita, adibidez), ikastegi bateko edo batzuetako datu-baseetan egotea (adibidez), ikastegi horiei buruzko informazioa jasotzea (ikastegiko aldizkari birtuala, askotariko informazioa, etab.), UPV/EHUko dendetan % 5eko deskontua lortzea (adibidez), lan eskaintzak jasotzea, etab.
HELBURUA	Ikasle egresatuekin harremana mantentzea eta haiekiko lotura areagotzea.
PROZESUAREN EBALUAZIOA	Datu-basea edukitzea.
EMAITZEN EBALUAZIOA	Lotutako posta kopurua. Lau urtean behin. Aktibo dauden posten kopurua. Lau urtean behin. Baja kopurua. Lau urtean behin.
ARDURADUNA	Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko Errektoreordetza (IAZ).
LAGUNTZAILEA	Ikasleen kontseiluak, Idazkaritza Nagusia, Komunikazio Zuzendaritza, ikastegietako komunikazio arduradunak.
LEHENTASUNA	Ertaina

4.3.

BARNE KOMUNIKAZIO EKINTZAK

EKINTZA	4.3.14. Urtero UPV/EHUko prestakuntza eskaintza bidaltzea ikasle egresatuei posta elektroniko bidez, graduondoko eta masterren eskaintza nabarmenduta.
HARTZAILEAK	UPV/EHUko egresatuak.
DESKRIBAPENA	Ekintza hau ehualumni estrategiaren barruan dago, UPV/EHUko Gobernu Kontseiluan 2015ean aurkeztutakoa eta 2016ko otsailean onartutakoa. Asmoa da ikasle ohiei beren interesekoa izango den prestakuntza eskaintzari buruzko informazioa bidaltzea; batez ere, graduondoko, master eta doktoregoei buruzkoa. Informazioa zabaltzeko protokolo bat ezartzea, mezua identifikatzeko eskariaren motor gisa. Adibidez, zerbitzu jakin bat aipatzea, pasahitz bat, etab.
HELBURUA	UPV/EHUko kide izatearen sentimendua indartzea. UPV/EHUko jardueren berri ematea. Etorkizunean ikasle izan daitezkeenak erakartzea.
PROZESUAREN EBALUAZIOA	Posta informatiboaren bidalketa.
EMAITZEN EBALUAZIOA	Erantzun positiboen kopurua identifikatzea. Lau urtean behin.
ARDURADUNA	Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko Errektoreordetza (IAZ).
LAGUNTZAILEA	Komunikazio Zuzendaritza, ikasleen kontseiluak, ikastegietako komunikazio arduradunak.
LEHENTASUNA	Txikia.

4.3.

BARNE KOMUNIKAZIO EKINTZAK

ERINTZA	4.3.15. Ikasle egresatuek unibertsitateko jardueretan parte har dezaten sustatzea: ekitaldiak, jardunaldiak...
HARTZAILEAK	UPV/EHUko egresatuak.
DESKRIBAPENA	Ekintza hau UPV/EHUko Gobernu Kontseiluan 2015ean aurkeztutako ehualumni estrategiaren barruan dago. Helburu da, graduoko edo graduondoko ikasketak bukatzean, UPV/EHUko ikasle egresatuek unibertsitatearekin duten lotura ez etetea, eta ikasleek beren prestakuntza bizitza osoan unibertsitateari loturik jarraitzea. Ekintza honek lotura estua du ikastegiaren hedapenarekin zerikusia duten ekintzekin; adibidez, jardunaldi edo mintegiak antolatzea, etab.
HELBURUA	UPV/EHUko kide izatearen sentimendua indartzea. UPV/EHUko jardueren berri ematea. Etorkizunean ikasle izan daitezkeenak erakartzea. Ikasle egresatuen garapen pertsonalaren eta profesionalaren jarraipena egitea.
PROZESUAREN EBALUAZIOA	Posta informatiboaren bidalketa.
EMAITZEN EBALUAZIOA	Erantzun positiboen kopurua identifikatzea. Lau urtean behin.
ARDURADUNA	Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko Errektoreordetza (IAZ).
LAGUNTZAILEA	Romunikazio Zuzendaritza, Ikasleen kontseiluak, ikastegietako komunikazio arduradunak.
LEHENTASUNA	Ertaina.

4.3.

BARNE KOMUNIKAZIO EKINTZAK

EKINTZA	4.3.16. Ekitaldi bat antolatzea urtero, non UPV/EHUk beren enbaxadoreen aitorpena eta izendapena egingo duen. Ekitaldira euskal gizartea ordezkatzeko duten gizarte, politika, ekonomia eta kultura arloetako ordezkariak gonbidatuko dira.
HARTZAILEAK	UPV/EHUko egresatuak. Euskal gizartea
DESKRIBAPENA	Ekintza honek bi ikuspegi biltzen ditu: barrukoa, UPV/EHUko egresatuak saritzen dituelako, eta kanpokoa, euskal gizarte osoa parte hartuko duen ingurune bat sortzen duelako. Asmoa da UPV/EHUk ekitaldi bat antolatzea urtero bere enbaxadoreak onartzeko eta izendatzeko, UPV/EHUko ehualumni horiek baitira, hain zuzen, UPV/EHUren balioen ordezkari onenak. Proposamen gisa, urtero UPV/EHUko lau enbaxadore izendatu daitezke. Izendatutako pertsonak ezagunak izango dira beren ikerketa lanengatik eta gizarte difusiogatik, euskal gizartearekiko erakutsitako konpromiso etikoagatik, euskal kultura eta euskarekiko loturagatik, eta beren izaera internazionala eta unibertsalagatik.
HELBURUA	UPV/EHUren marka identitatea eta irudia bultzatzea. UPV/EHU euskal gizartera hurbiltzea.
PROZESUAREN EBALUAZIOA	Ekitaldia antolatzea eta egitea.
EMAITZEN EBALUAZIOA	Gizarte, politika, ekonomia eta kultura arloetako liderrak joatea. Hedabideetan lortutako oihartzuna.
ARDURADUNA	Komunikazio Zuzendaritza.
LAGUNTZAILEA	Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko Errektoreordetza.
LEHENTASUNA	Ertaina.